

Astekaria

BARREN

elgoi

San Juanekin hasi dira auzoetako jaiak



LARRAÑAGA autoeskola



Santa Ana, 11. Tel: 74 10 11 Elgoibar

3 LAU HANKATAN

"Publizitate eta aurrezki kutxetako paperen artean, gutun bat dago. Elgoibartik dator. Zer ote da?" **Asier Etxeberria.**

6 **ERREPORTAIA:** ALTZOLA: BAINUETXEAREN INGURUAN HAZITAKO AUZOA
Altzola, aski ezaguna izan zen sasoi batean bertoko ur termalak zenbait gaisotasun sendatzeko zuen ahalmena zela eta.

8 **ARRAZOIAK ERDIBANA:** BA AL DUZU ANIMALIARIK ETXEAN?
Sara Bernedo: "Animaliak asko gustatzen zaizkit eta batez ere txakurrak".

Juani Bergara: "Gure etxeak ez dira egokiak guk barruan animaliak eduki ditzagun".

12 BERBETAN: Pablo Zamorano

"ELIZA KONPROMETITUAGO DAGO HEGO AMERIKAN"

14 KIROLA:

GAIA: NAHASTE BORRASTE ETA EUSKADIKO ESKALADA TXAPELKETA
ELKARRIZKETA:

Ales Galarraga: KADETE MAILAKO EUSKADIKO TXAPELDUNA

16 ELKARTEETATIK BUELTAN

"EGUR" TAILERRA: ARTEAREN ESPRESIOBIDE

17 KULTURA

ERRUSIAR PORTZELANAZKO ESKULANEN ERAKUSKETA KULTUR ETXEAN

PREMAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko	743354
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa)	743936
Odol Emaileen elkarte	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC)	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Polikiroldegia	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola	74 08 79
I.M.H.	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola	74 27 00
L.H.I.	74 31 00
Pilar Ikastetxea	74 13 31

TXANDAK

FARMAZIAK:

26, larunbata: **ETXEBERRIA**

27, igandea: **ETXEBERRIA**

28 astelehena: **YUDEGO**

29, asteartea: **YUDEGO**

30, asteazkena: **ORMAZABAL**

1, osteguna: **ORMAZABAL**


2, ostirala: **ETXEBERRIA**

OKINDEGIAK:

27, igandea: **ZABALETA**



HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea
☎ 74 16 26

Laguntzailea
Elgoibarko Udala

Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirrezaldegi

Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu

Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton
Bergara, Edurne Bilbao,
Rosa Iriondo, Jose Inazio
Sarasua

Kazetaria
Ainhoa Lodoso

Maketatzailea
Maite Rementeria

Publizitatea
Amaia Leiaristi

Administrazioa
Josune Fernandez
M. Angeles Ortuoste

Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto
Ansuategi, Isabel Ansola,
Joxin Arregi, Belen
Arrizabalaga, Bertso Eskola,
Agur Miren Barandiaran,
Hasier Etxeberria, Maite
Iriondo, KOKOE, Imanol
Larrañaga, Koldo
Lizarralde, Aitor Lodoso,
German Meababasterretxea,
Jasone Osoro, Diana Perez
de Albeniz, Lorea Perez de
Albeniz, Eduardo Sanz,
Aitor Zabaleta

Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia

Helbidea
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

Lege gordailua
SS-1.038/92

ISSN
1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

LAU HANKATAN



Hasier Etxeberria

Loreak udan ihintza bezala

Buzoia zabaldu dut. Lagunen gutunak jasotzeko itxaropenik ez da sekula galdu behar telefonoa-ren garai azkar hauetan. Publizitate eta aurrezki kutxetako paperen artean, gutun bat dago. Elgoibartik dator. Zer ote da?

Elgoibarko Izarrak bidalitakoa da. elgoi**BARREN** aldizkariaren balorazio bat egiteko eskatzen zait bertan, nik guzti honetaz zer edo zer baneki bezala. Kalitatea, itxura, harrera... mota guztietako galderak egiten dizkidate bertan. Arraioa! Zer erantzun behar dut, baina?

Hara, urruti samar bizi naiz eta oso atzeraturik jasotzen dut Elgoibarko aste-karia. Hala ere, benetan diot, loreak udan ihintza bezala jasotzen dut buzoian aurkitzen dudak bakoitzean. Zilbor heste bilakatu da nerretzat. Sorterriarekin daukadan informazio biderik sendoena.

Agertzen diren gaiak interesgarri egiten zaizkit gehienetan, baina badira askoz ere gehiago eskertzen ditudan gauzak. Denbora nola pasatzen den ikustea, esate baterako.

Herritar askoren erretratoak agertzen dira astero, eta ez dago hori bezalako erregalorik kanpoan bizi den batentzat. Hara hau, oraindik ere bere antiaju zaharrekin segitzen du... han beste hura, pelukeriatik irten denean harrapatu dute argazkian... Hola ibiltzen naiz, ume bihurri baten antzera. Eta gustatzen ez

zaidan norbaiten erretratoa ikusten dudanean, Dalí pintorearenak bezalako biboteak jartzen dizkiot errotuladore beltz batez, edo Lola Floresek bekokian daukan bezalako kibizta, edo patillak, edo antiajuak, edo zigarro puru bat ezpaine-tan, edo...

Argazkiekin bukatutakoan, polikiago irakurtzen hasten naiz eta gaiei begiratzten diet. Talentu askorekin erabakitakoa izaten dira gehienetan. Guztiz interesgarriak. Komikiaren ironia ere, eskertzekoa da.

Akatsak ere ikusten dizkiot, nola ez bada. Elgoibarko berbetia ez da gehiegi agertzen, eta nik uste, Euskara Batua kontrako arriskurik ez dagoen honetan, mesede egingo ligukeela denoi, geure herriko berbetia ezagutu eta erabiltzeak. Elgoibarko euskara zoragarria da, eta edonoren aurrean harrotzeko moduan gaude.

Hala ere, pozik haundiena, lehengo egun batean Agote A.T.S.ari irakurri nion elkarrizketak eman zidan. Kexatu egiten baitzen Agote astekariak mintzo zenean. Zergatik euskara hutsean? Erderaz ere behar lukeela esaten zuen berak, injenuitate handiz.

Euskarazko aldizkari baten osasuna neurtzeko ezagutzen al duzue hori baino sintoma hobeagorik?

Esandakoa, ihintza udako loreari bezala.

DEKORAZIOA

PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Fotero

OKINDEGIÀ
OPILDEGIÀ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Ogasuntzako zinegotziaren oharra

1.- Drogomenpekotasunaren gaiaz eta bere ondorioez Udala beti izan da sentibera.

2.- Udalak joan den lau urte hauetan badu prebentziorako teknikari bat. Pertsona hau Eusko Jaurlaritzako Prebentzio Sailak osatutako egitarauak garatzeaz arduratuzen da.

3.- Egitarau hauek O.H.O.ko Eskola, Lanbide Eskola eta Batxillergo Institutuetan burutzen dira ikasle, irakasle eta gurasoen laguntzaz.

4.- "Gizakia Helburu" egitarauaren bidez sendatu nahi dutenentzat laguntzak jartzen ditu Udalak.

5.- Elgoibarko Udala, Gipuzkoako kirol, Kultur eta Atsedenerako izendatutako dirulaguntzarik handienetakoak ematen

dituena da. Hau ere prebentzioa da.

6.- Egitarau eta ihardunak osatzeko gertu dauden taldeei laguntzeko beti gaude eta egon gara prest; beti ere elkarlanerakoak eta egitarau serioak direnean, gaiak hori eskatzen baitu.

7.- Horren berri gehiago nahi duenak, Udaltxeko Gizarte Ogasuntzako Prebentzio Saila bere esku du.

Ogasuntzako zinegotzia

Joku eskolarretako sarien balioa

Duela bi aste tarte honetan agertutako idatziari erantzunez, talde bakoitzari 10 boltsa ematearen zergatia argitu nahi nuke. Sari banaketaren egunerako, 200 boltsa besterik ez genuen jaso. Hori dela eta, hurrengo asteotan Udal Kirol Zerbitzutik pasa direnek falta

zitzaien boltsa jaso ahal izan dute.

Badirudi, Udal Kirol Zerbitzuaren helburuetariko bat den "herritarrengandik hurbil egotea" oraindik ez dugula zeharo lortu. Nahiz eta urte osoan zehar, astero eta lan orduetatik kanpo, eskola bakoitzeko kirol ordezkariekin elkartu, entrenatzaileei zaila suertatzen zaie Udal Kirol Zerbitzura hurbiltzea edo telefonoz deitzea, beraien proposamen eta kezka azaltzeko.

Entrenatzaile batzuen, ez guztien, jarrerarengatik, datorren kurtsorako arbitrorik ez lortzeak kezkatzen nau. Arbitroek diotenez jasan ezinezkoa zaie guraso eta entrenatzaile batzuen jarrera eta arazo hori dela eta, aurten behin baino gehiagotan arbitroekin elkartu izan gara.

Joku eskolarren helburu nagusia haurrak, kirola

medio, hezitzea izan beharko luke eta estimulo motibantea beraien arteko elkartasunean aurkitu beharko genuke eta ez sarien balioan.

Ramon Mujika
Udal Kirol Teknikaria

Ez ahaztu, eskutitzak, idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta N.A.N.a izan beharko dutela. Argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatzen badu, inizialak soilik agertuko dira.

Kritika eta gaitzespen mota guztiak onartuko badira ere, ez da tokirik izango irainduz edo errespetu faltaz idatzitako eskutitzentzat.

ALTZARIAK-DEKORAZIOA

Friondo

Santa Ana, 4 eta 6
Tel: 74 12 34
ELGOIBAR

Ekaina
eta
uztaileko

ESKEINTZA

PIKOLIN koltxoia eta somierra erosterakoan **opari bat** eta **Almeriako kostara bidaiatzeko aukera** izango duzu.



Aste honetako erretratua **Pako Isastik** lagatakoa da. Berau 1947. urteko ekainaren 24an, San Juan jaietan, Altzolan ateratakoa da.

Pakok esan digunez, erretratuan azaltzen den bezalako prozesioak betidanik egin izan dira Altzolan San Juan egunez.

Meza nagusiaren aurretik prozesioan irteten dira parrokiatik iturriraino, hemen buelta eman eta berriz ere parrokiara, mezari ekiteko. Prozesioaren buruan txistulariak joaten dira (orduan Ansola anaiak ibili omen ziren urte askotan), ondoren korokoak San Juanen ereserkia edo imnoa kantatzen; jarraian apaiza eta monagiloak joaten dira San Juan eta Amabirjinaren

irudiarekin, apaizaren atzetik agintariak joaten ziren (Alkatea eta aguazila).

Pakok esan digunez gaur egun ez omen da inolako agintaririk azaltzen; Elgoibarko agintariak zeharo ahazturik omen dute Altzola.

San Juan eguneko Altzolako prozesioari buruzko xehetasun batzuk jakin ondoren, ikus dezagun zeintzuk diren orduko koruko partaideen izenak:

Ezkerretik eskumara, **Jose Mari Landa** (apaiza), **Alberto Landa**, **Prudentzio Arrizabalaga**, **Jose M. Goikoetxea**, **Vitoriano Etxabe**, (atzekaldeko bikotea) **Pako** eta **Karmelo Isasti** anaiak. **Apaiza: Don Casiano Olañeta**.

udan euskaraz

arin-arin
æk

- ⇒ Euskarazko klaseak uztailean
- ⇒ Maila guztiak, alfabetatze eta EGA
- ⇒ 3 eta 5 ordu

Euskaltegia. Plaza txikia,3. Tel: 74 13 32

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

ZOBEL **ZB**

KORTSETERIA, OSAGARRIAK
ETA BARRUKO ARROPA.

San Roke 13 behe. Tel: 74 34 01

Altzola: Bainuetxearen inguruan hazitako auzoa

Altzola auzoa, aski ezaguna izan zen sasoi batean bertoko ur termalak zenbait gaisotasun sendatzeko zuen ahalmena zela eta. Honen inguruan bainuetxea eta hotel handi eta txikiak sortu ziren. 1846 urtean eraiki omen zuen bainuetxea aberats elkarte batek. Sasoi oparotsuak bizi izan zituen Altzolak bainuetxeari esker. Izan ere, 7 hotel eta pentsio egon ziren Altzolan Espainia guztitik eta Amerika eta Kubatik ere zetozen bisitariei ostatu emateko.



↳ Altzolak bainuetxeari zor dio izandako ospea.

Bainuetxea eraiki zutenean, marmolezko lau aska eta pizina bat baino ez zituen. Gero, bainu-ontzi kopurua gehitu egin zen, 18 guztira, ostatua ere hobetu egin zen, 60 pertsonarentzako lekua eginez. Alboan beste hiru etxe eraiki ziren ostatu gisa.


Bainuetxeko hotelera, Altzolako hotel hoberena zenera, jende aberatsa joaten

omen zen. Oso ezaguna zen bainuetxea, garbitasunagatik eta jan-edan onagatik. "Kategoria" gutxiagoko jendeak, berriz, Altzolako beste hotel eta pentsioetan hartzen zuen ostatu. Sei pentsio eta hotel txiki omen zeuden Altzolan: "Hotel Larrañaga", "Hotel Alzola", "Hotel Ituarte", "Hotel Amezkua", "Hotel Zelaia" eta "Hotel Boulevard". Baina guztien

artetik entzutetsuena bainuetxeko hotela zen. Urak hartzeko sasoiak, ekainaren 15ean hasi eta urriaren 15ean bukatzen zen. Bisitari edo gaisoak 15 egun edo hilebete gehienez egoten ziren Altzolan eta abuztua izaten zen jende gehien etortzen zen hilabetea.

Altzolako ura Deba ibai-ko ezker aldean dagoen ur-negar termo-mineraletik ateratzen zuten. Ura, 30 gradutan ateratzen zen ur-negarretik eta tenperatura horretan edatea derrigorra zen gaitza sendatzeko. Aproposa zen giltzurrunetako gaitzak sendatzeko; "koliko nefritikoak" sendatzeko, batez ere. Giltzurrunetako gaitzetaz gain, urdaileko minak kentzeko, gorputza garbitzeko, puxigako hotzak sendatzeko etab. Altzolako ura edanda edota bainuak hartuta, giltzurruneko hondar eta harriak bota egiten zituen

Altzolako ura edanda edota bainuak hartuta, giltzurruneko hondar eta harriak bota egiten zituen gaisoak, mina desagertzen zen, digestio aparatuko funtzioak bere onera etortzen ziren.



↳ Bainuetxeko egongeletariko bat.

gaisoak, mina desagertzen zen, digestio aparatuko funtzioak bere onera etortzen ziren, eta orokorrean, gaisoaren osasuna hobetu egiten zen. Bainuetxeko gaisoek edaten zuten ur kopurua zela eta, litro t'erdi edo bi litro eguneko, pisa-lekuz josita zegoen bainuetxea.

Bainuetxera heltzen zen gaisoak, urak hartzen hasi baino lehen, bainuetxeko medikuaren azterketa pasa behar izaten zuen. Medikua, gaisotasunaren araberak, tratamendua jartzen zion. Zenbait kasutan, ura edatea gomendatzen zuen eta beste batzutan, bainuak hartzea. Gaiso bakoitzak urez beteriko edalontzi bana izaten zuen eta bi emakume bakoitzari zegokion orduan edalontzia emateaz arduratzen ziren. Sasoialdi guztirako balio zuen "bale" bat erosten zen. Bainuak, bainuetxearen beheko solairuan zeuden, urak jaiotzen ziren lekutik gertu. Emakumezkoentzako bainu gela bat zegoen, eta gizonezkoentzako beste bat. Urak hartzen ziren bitartean, ariketa fisikoak egitea, garbitasuna zorrotza izatea eta

**Bainuetxeak,
jangela
dotoreak, 130
logela
igongailu eta
guzti, ur hotza
eta beroa,
dantza eta
jokoetarako
gelak,
elizatxoa eta
zerbitzu ugari
zituen.**



↳ Ondo jaten ematen zutenaren fama zeukan bainuetxeak.

gehiegi ez jatea gomendatzen zuten. Tratamendua amaitutakoan ere, botilan gordetako ura hartzea gomendatzen zuten. Izan ere, bainuetxea itxita zegoen sasoiari, botila urez betetako kaxak Espainiako hainbat lekutara bidaltzen ziren trenez.

Bizitza sozial handiko gunea zen Altzola garai hartan. Taberna bat eta "kafe" bat zegoen. Pasialeku ederak zituen eta trena 20 aldiz pasatzen zen bertatik, edozein txango edo irteera egiteko aukera emanez. Bainuetxeak, jangela dotoreak,

130 logela igongailu eta guzti, ur hotza eta beroa, dantza eta jokuetarako gelak, elizatxoa eta zerbitzu ugari zituen. Gauetan, orkestina egoten omen zen, bainuetxeko bisitarien ohiturei jarraiki.

Pertsonaia historikoak ere izan ziren bainuetxean: Antonio Maura, Mahou, Bonbin (Alfonso XIII.aren "billar"eko maisua)... Gerra garaian bainuetxearen hotela itxi eta ospital bihurtu zuten Frankoren aldekoek. Bainuetxeko publizitate liburuxka batek dionez 1870. urtean Napoleon IIIak, ura hartzeko asmotan, kimiko bat bidali zuen Altzolako ura azter zezan. Urte horretan Alemania eta Frantziaren arteko gerra piztu zen eta enperadoreak ezin izan zuten Altzola bisitatu.

Medikuntzaren aurrerakuntzak, ordea, "Madrid txikia"ren (horrela deitzen zitzaien Altzolari) gainbehera ekarri zuen. Ur termalak baino operazioak nahiago zituen jendeak eta, hori dela eta, bainuetxearen zerbitzuak eta hotelak itxi egin ziren.



AZKUE

↳ Pertsonaia ezagun ugari etortzen zen Altzolara urak hartzera.

Ba al daukazu animaliarik etxean?

Gaur egun animalianganako maitasuna jende askok du, batzutan guk aurkakoa pentsatu arren. Niri, pertsonalki, animaliak asko gustatzen zaizkit, batez ere txakurrak.



Nire etxean txakur bat daukagu eta bost urte dauzka. Txikia da, pisu batean txakur handi bat sartzea zaila delako. Gainera kaltegarria da, bai txakurrarentzat eta bai norberarentzat.

Bestalde, sinestezina da txakur batek eman diezazukeen maitasuna. Pertsona batzuek, txakur bat edukitzea, nazkagarria eta osasunarentzat kaltegarria dela eta lana besterik ez dutela ematen esan ohi dute. Baina hau ez da egia. Animalia bat nazkagarria izatea, bakoitzaren gustoaren arabera dago. Osasunarentzat kaltegarria dela, ez da egia, txakurra ongi txertatua eta zaindua badago. Zaindariak arazo konkretu bat izatea beste kontu bat da.

Gaur egun, konprobata dago txakurra duen jende edadetuek osasun arazo gutxiago duela. Askok, bakarrik bizi dira, baina txakur bat dute eta

honek beraien bakardadea eta zahartzarora gainditzen laguntzen die.

Umetan ere, ondorio onak dakartza etxean horrelako animalia bat edukitzeak. Beren denbora librean, telebistan edo bideo-jolasetan pasatu beharrean txakurrarekin pasatzen dute. Eta honek beraien gaitasun afektiboa hobetzea dakar.

Txakur bat edukitzea, oso atsegingarria da, baina noski, ez nioke inori txakur bat hartzen utziko, honek dakarren ardura ez betetzekotan.

Eta sinestezina da gaur egun pertsona batzuek egiten dutena animalia hauekin. Udara iristean, oporrak direla eta, txakurra kalean uzten dute. Txakurrak sentimenduak dauzka eta, sinestezina badirudi ere, txakur bat tristuraz hil daiteke.

Sara Bernedo



Hasteko esan nahi dut niri animaliak gustatzen zaizkidala, ez daukat ezer haien kontra baina etxean edukitzeari ez deritzot batere ondo.

Lehenengo, gure etxeak ez dira egokiak guk barruan animaliak eduki ditzagun; txikiak dira eta ez dago lekurik.

Horretaz aparte, animaliak edukitzeko ondo zaindu behar dira, guk behar izaten ditugun beste zainketa behar izan ohi dituzte batzuek, hau da: medikua, janaria, etb.

Halabaina, gaur egungo bizitzak ez badigu denborarik lagatzen geure burua zaintzeko, nola zainduko ditugu animaliak?

Baina gauza hauek, guztiz logikoak dira animalia bat etxean edukitzeko orduan; halere, animalia bat etxean edukiz gero, beste arazo larri batzuk sor litezke. Adibidez auzoan, kasu batzuetan animalia bat edukitzeak sortu dituen konpenezinak, bai animalia ez delako ondo hezitu, bai badagoelako animaliak

soportatzen ez duen jendea.

Bestalde, batez ere oporretara joateko garaia etortzen denean, batzuentzat animalia konpromezu handia izaten da, eta batek baino gehiagok garai horretan kalean uzten ditu inolako ardurarik gabe.

Baina nik uste dut animalia bat edukitzea erabaki baldin badugu berarekin bizitzen ikasi behar dugula eta ez eduki edukitzearren, hau da, ez kapritxo bat bezala.

Animaliek ere gure maitasuna behar dute, baina gure denbora ezaगतिक ezin diezazkiekegu eman haiek behar dituzten zainketak; beraz, nahi izanda ere ezin da etxean animaliarik eduki, haieneztat lekurik aproposenak baserriak edo mendiko etxeak dira. Han, laguntzeaz aparte, gustura bizi dira.

Juani Bergara

GORRINO
dekorazioa

San Bartolome, 21 -tel. 74 01 91- 20870 Elgoibar

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

PUB

ATANZ

elgoibar

ETA ZURE USTEZ?

Ba al daukazu animaliarik etxean?



Rosa Mari Kortabarria
45 urte, tabernaria

Guk ez daukagu batere. Gustatzen jata baina kale etxian ez jata egoki iruditzen. Ez dit graziarik egi-ten.



Josu Agirregomezkorta
17 urte, ikaslea

Guk ez dauzkagu anima-liarik. Lan asko daukate. Neregatik balitz edukiko naban baina aitak eta amak ez didate lagatzen.



Pakita Roa
41 urte, etxekoandrea

Guk txori bat daukagu. Niri gustatzen zaizkit ani-maliak baina lan handia ematen dute. Etxe txikieta-rako ez zaizkit gustatzen.




Nerea Kortazar
26 urte, laborategi teknikaria

Ez dauzkat eta ez ditut euki nahi. Animalixak bere tokixan egon behar dira, txabolan. Baina etxean ez.



Jesus Hijano
25 urte, ikaslea

Ez daukat animaliarik aler-gia ematen didatelako. Baina ez zait gaizki irudi-tzen etxean edukitzea, beti ere albokoak molestatzen ez baditu.



Jose Urkiri
66 urte, jubilatua

Animalixak kale etxean ez jataz gustatzen. Ez dago lekurik. Batzuri gustatu arren neri ez. Baserrixan, ordea, biharrezkua da.

**I
L
E
A
P
A
I
N
D
E
G
I
A**

FADEK
SOLIDARIUM

Enosario Kalea, 35 behe
☎ 74 26 92 *Elgoibar*

NAVA

*Inpresoreak
Inpresoreak
Inpresoreak
Inpresoreak*

Sta. Ana, 44
Tel 74 44 51

BARRENek
PUBLIZISTA BAT BEHAR DU

Interesatuak bidali curriculum-ak, ekainaren 28a baino lehen helbide honetara.

ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkarte
Ubitarte 4 behe Tel: 74 16 26

Ikastolaren eztabaidarekin amaitu nahi dute publikoaren aldekoek

Ikastola publikoaren aldeko zenbait irakasle eta gurasok bilera informatibo bat egin zuten astelehen gauean Kultur Etxean, egindako lanaren berri emateko. Bi ordu t`erdi iraun zuen bileran, Elgoibarko Ikastolak izan duen eta oraindik ere duen izaera publikoaren alde aritu direla adierazi zuten. Junta Erretorak "kosta ahala kosta" ikastola pribatizatzea izan duela helburu eta azken batean gehiengoari "adarra jo" zaiola azaldu zuten. Halaber, eman dituzten pausu guztiak "gehiengoaren nahia bideratu nahian" eman dituztela gaineratu zuten. Aurreantzean gauzak argituko diren ustetan, ikastolaren eztabaida bere horretan uztea erabaki zuten.

Mekanografia ikastaroa

Elgoibarko Lanbide Heziketarako Institutuak ikusentzuteko mekanografia ikastaroa antolatu du uztailaren 1etik 27ra arte. Klaseak egunero izango dira goizeko 10etatik eguerdiko 12etara. Ikastaroaren iraupena 45 ordukoa izango da. Informazioa edo izena eman nahi duenak telefono hauetara dei dezake: 74 05 86-74 31 00.

3. adinekoentzako Santanderrera irteera

Elgoibarko Zaharren Biltokiak uztailaren 8rako, osteguna, Santanderrera irteera antolatu du. Autobusa Plaza Handitik aterako da goizeko 8,30etan. Nahi duen guztiak izena eman dezake Zaharren Biltokiko zuzendaritzan uztailaren 1ean eta 2an, goizeko 10etatik 12etara. Izena ematerakoan bazkide agiria aurkeztu beharko da.



AZKUE

Tradizioari jarraituz, su ugari piztu ziren han hemenka San Juan bezperan. Suaren gainetik salto eginez, gorputzak berritu eta izpiritu txarrak aldentzen diren siniskeriagatik ez bada ere, haur, gaztetxo eta nagusi ugari suaren gainetik saltoka jardun zuten San Juan gauan. Suak erredua bat baino gehiago sortuko zituen seguraski baina Gurutze Gorrikoek esan digutenez ez zuten larrialdirik izan gau osoan.



Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleek 1992-93 ikasturte bukaerako jaialdia ospatu zuten pasa den astean Herriko Antzokian. 200 ikasle inguruk hartu zuen parte hiru egunetan zehar, asteazken, osteguna eta ostiralean, banatu zen jaialdian. Bigarren aldia da honako hau hiru zatitan banatzen dutena jaialdia. Izan ere, jende pilakatea gutxiago sortzen da horrela, eta ahalik eta ikasle gehienak hartzen du parte jaialdian. Asteazkeneko saioan, Musika eskolako abesbatzak eman zion amaiera ekialdiari, ostegunekoan akordeoi taldeak eta ostiralean, kontserbatorioko orkestaren emanaldiarekin bukatu zen jaialdia.

Elgoibar, Eibar eta Sorluzeko AEK euskaltegien artean antolatutako zozketan, hilaren 15ean saritua izan den zenbakia 7.956 izan da. Zenbakia Elgoibarren saldu zen eta irabazlea argazkian agertzen den Maite Izagirre da. AEK-k errifak erosten eta saltzen lagundu duten guztiak eskertu nahi ditu. Zorionak, Maite!



SOARTE

San Bartolome jaietarako kartel lehiaketa

Elgoibarko Udaleko Kultur batzordeak 1993. urteko San Bartolome jaietarako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketaren oinarriak kaleratu ditu.

Edonork har dezake parte bertan eta erabili beharreko teknika, librea izango da. Lanek A2 neurria izan beharko dute eta honoko testu hau agertu beharko dute diapositiban egindakoek ezik: "Elgoibar, San Bartolome Jaiak 1993".

Lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira uztailaren 19a baino lehen.



Bat baino gehiago

arrituko da bere buruari galdetzen zer ote den mutil honek esku artean duen makila. Sinestezina bada ere Cricket -erako bate bat da. *Kensington* ingeles akademiako ikasle batzuk kirol ingeles honen oinarriak ikasten aritu ziren.

Ur, zabor eta alkantarila erreziboen ordainketa

1993. urteko hiruhilabeteari dagokion ur, zabor eta alkantarila sarearen erreziboak ordaintzeko azken eguna uztailaren 9a izango da. Ordainketa Udal bulegoetan egingo da goizeko 11etatik 1era bitartean. Epearen barruan ordaintzen ez dutenei %20ko errekaragua ezarriko zaie.



IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1993-94 ikasturterako aurreinkripzioepea zabalik dagoela.


Espezialitateak:

- Haur -Eskola
- Euskal Filologia
- Ingeles Filologia

Informazioa

Irakasle Eskola. Tfnoa: (943) 71 41 57

**XAHEN
BIDAIAK**



TXEKIAR ERREPUBLIKA-ESLOBAKIA-BUDAPEST

93-8-1 / 93-8-1575.000 pta.

KORSIKA

93-8-16 / 93-8-31 79.000 pta.

MAROKO (Atlas + desertua)

93-9-1 / 93-9-1574.000 pta.

93-8-1 / 93-8-1574.000 pta.

* 17 lagunentzako autokarabarekin goaz, litera, sukalde eta guzti.

* Bizikleta eta piraguak eramango ditugu, mendiko trabesia bat ere egingo dugu oinez.

* Informazio gehiago: 74 02 99 bulego orduetan.
(94) 613 40 75 gauean (Adrian).

"Eliza konprometituago dago Hego Amerikan"

Gutxi batzuek, agian, gogoratuko dute Pablo Zamorano. Palenciako Villamediana herrian jaio zen gizon hau 1963an etorri zen Elgoibarrera "El Pilar" ikastetxean irakasle gisa aritzeko. Hala ere, lau urte besterik ez zituen herrian eman, 1967an Txilerako bidea hartu baitzuen.

Han Misioetan ibili da, martxoan berriz ere Elgoibarrera itzuli den arte. Egun hauetan Txilera bueltatzekoa zen eta ama gaixorik duenez bidaiara atzeratzea erabaki badu ere, BARRENi aitortu dionez, hurrengo bidaiak ez du itzulerarik izango.

-Zure ustez, zer da gaur egun misiolari izatea?

-Beste herrialde batzuetako elizei itxaropena bizitzen laguntzea eta ebangelizatzen jarraitzea. Ebangelizatuta dauden herrialdeetan itxaropena mantentzea han jendea falta delako, bokazio gutxiago dute eta.

-Badirudi Hego Ameriketako Eliza herritik gertuago dagoela eta hemengo berriz, giza arazoetatik urrunago. Zer deritzozu?

-Konprometituago dago. Nik arazo puntualekin hierarkikoki konprometituago dagoela ikusi dut. Eta Txilen oso argi ikusi da; lehenengo Allenderen aurka burukatzen zen eta gero Pinocheten aurka, gauzak ondo ez zeudela ikusten zutelako. Elizak beti gehiegikeriak salatu egin ditu.

-Miseria handia al dago Hego Amerikan? Nola izango litzateke posible txirotasun hori konpontzea?

-Hango pobrezia, toki guztietako bezala, aberastasuna ondo banatuta egongo balitz konponduko litzateke. Txilen %10ak %90a duela eta %90ak



"Hango pobrezia, toki guztietako bezala, aberastasuna ondo banatuta egongo balitz konponduko litzateke"

produkzioaren %10a duela esaten da.

-Merezi al du norberaren bizitza besteen arazoak konpontzen ematea?

-Bai, merezi du. Batez ere guk, erlijiosoak garenok, Kristok esandakoari jarraitzen diogu, zeinek gu guztion alde eman zuen bere bizitza. Gu bere jarraitzaileak gara eta, logikoki, merezi du, bera gugatik hiltzeak merezi izan zuen eta.

-Hego Amerika 3. mun-

dua eta Euskal Herria lehen mundua. Ados?

-Aspektu batzuetan bai eta beste batzuetan ez. Adibidez, nik Txilen ikusi dudana nagatik, eta Txile ez da Hego Ameriketako herrialde atzeratuenetarikoa, aurreratuenetarikoa baizik, batez ere kulturalki, eurek misiolari erlijiosoari egiten dioten harrera, hemen orain dela 30 urte egiten zitzaionaren parekoa da.

-Zein da inoiz ahaztuko ez duzun bizipena?

-Izan nuen harrera. Beraiek familiakoa bazina bezala hartzen zaituzte.

-Maisu izan al zara Txilen?

-Bai, OHOk eskola baten irakaslea eta zuzendaria izan naiz.

-Ze desberdintasun ikusten dituzu hemengo eta hango umeen artean?

-Hango umeek OHOk mailan bi urtetako atzerapena dute hemengoekiko. Emaiz txarragoak dituzte. Nire ustez, eta askok esaten dutena da, janari faltak ez die uzten arreta jartzen. Azkar nekatzen direlako da. Ez dute indar fisikorik azalpenak jarritzeko.

-Nola ikusten duzu zuk "Teologia de la liberación" delakoa?

-Brasilen eta Perun, jaio zen herrialdeetan, piskat atzera jo duela dirudi. Herrialde hauetan erradikalegia izan dela dirudi, praktikotasunera jo zuen neurri handi batean, espiritualitatea alde batera utziz. Ez da hain erradikala izan behar. Espiritualitatea mantendu behar da eta herriaren ondoan egon arren ez da ebangelizazioa bertan behera utzi behar.

Edu Sanz

Txaro Rojo

Emagiña



- Zenbat urte lan honetan? -Eskolara joan nintzenetik. 28.
- Zenbat haur ekarri dituzu mundura? -Ikastaro batzuk egitera joan nintzenean, 9 urtetan 10.500 izan zirela jakin nuen.
- Zenbat seme-alaba dituzu zuk? -Bi.
- Zein adin iruditzen zaizu egokiena haurdun gelditzeko? -25 urtetik 35 urtetara, emakumearen heldutasun garaia delako.
- Nola definituko zenuke erditzea? -Zoragarria da, haur bat mundura ekartzeagatik.
- Eta haurrak bezalakoak bagina guztiok? -Uf! desastre bat!.
- Gizonak kargatuta geldituko balira? -Ez legoke gaizki behin haurdun gelditzea, haur bat barruan izatea zer den senti dezaten.
- Emagina izateko: beso gogorak ala tripa onak? -Ez bata eta ez bestea. Bokazioa eta sakrifizio izpiritua izatea.
- Haurrak edukitzeko: etxean ala kirofanoan? -Erditze geltan. Atentzioa askoz hobea da eta medioak eraginkorragoak.
- Jostailuak sexistak iruditzen al zaizkizu? -Bai. Beti bezala dira.
- Zer iruditzen zaizu neskattoak larrosaz eta mutikoak urdinez janztaren ohitura? -Inozokeria bat; ohitura denez, berdin jarraitzen duela dirudi.
- Gazteria, sexualitate arloan, informaturik al dago? -Bai, %80-85aren kasuan, bai.
- Prebentzioa ala abstentzioa? -Prebentzioa.
- Haginak berdindu gabeko helduez zer iritzi daukazu? -Sekula ez dut horretaz pentsatu. Gutxi izango direla suposatzen dut, kasu isolatuak.
- Zaharrago eta txarrago? -Ez. Ez da zertan horrela izan.

Lorea Perez de Albeniz

BERTSOTAN

ANIMALIAK ETXEAN

Doinua: Aita izena

Animaliak eta gizonak ez uste geranik etsai batzuk urruti nahiago baina beste batzuk onduan nahi naturak jartzen digun legea izan dezagula itzai askatasunez bizi izateko beraiek eta gu lasai pertsonentzako askoz hobea da beraientzako ere bai (bis).

Batzurentzako bakardadeak beldurgarritzko itzala animaliak beren etxetan lagun bakarrak dirala gehienok berriz nahiz eta hartu izaki eder bezala gure etxean edukitzeak ez da hain gauza normala esanak esan bakoitzak gero berea egin dezala (bis).

Bertso eskola

MUS TXAPELKETA

Aterpe tabernan

Lau astetan zehar **ASTEARTE** eta **OSTEGUNETAN** gaueko **9,30**etan.

Inskripzioa: 1.000 pta. bikotea. Tel: 75 25 95

GURBIL *Jatetxea*

- Pintxoak - Eguneroko menua
- Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar

XVI. Mus Txapelketa

La Union arrantza eta ehiza elkarteak bazkideentzako XVI. Mus txapelketa antolatu du. Txapelketa hilaren 29an eta uztailaren 1ean, 6an eta 8an jokatu da eta hasiera ordua iluntzeko 9ak izango da. Parte hartu nahi dutenek txapelketa hasi baino ordubete lehenago eman beharko dute izena.

Sanboko sei domina Ibai gimnasioko judokentzat

Pasa den hilaren 19an, Bermeon jokatu zen Bizkaiko Sanbo txapelketan, Ibai gimnasioko junior eta senior mailako neska-mutilek urrezko 4 domina eta zilarrezko eta brontzezko bana eskuratu zuten.

Junior mailan, Javier Quintanok eta Migel Anjel Novak urrezko domina lortu zuten. Alaitz Bastidak ere bi urrezko domina lortu zituen, junior mailan bata eta senior mailan bestea. Zilarrezko domina Merce Reyk eta brontzezkoa, berriz, Ana Gonzalezek eskuratu zuten.

Beriain mendira travesia

Morkaiko Mendizale Elkarteak Unanua-Beriain-Lizarraga travesia antolatu du uztailaren lehen iganderako. Irteera Foruen Plazatik izango da eta ordua goizeko 8,30ak. Irteeraren prezioa 800 ptakoa izango da bazkideentzat eta 1.000 ptakoa gainontzekoentzat.



Alex Galarraga

Kadete mailako Euskadiko txapelduna

-Kontaizkiguzu txapela irabazi zenueneko lasterketaren gorabeherak.- Lasterketan bi portu edo mendate igo behar ziren. Lehenengoa ondo igo nuen baina bigarrenan nahiko gaizki pasatu nuen. Jeitsieran erreperatu egin nintzen eta 3 kilometro gelditzen zirenean, geldialdi bat aprobetxatu nuen ihes egiteko. Eta ondo irten zen.

-Datorren urtean berriro ere Euskadiko txapeldun?- Aurten kadete mailan *Muebles Olatzen* aritu naiz baina datorren urtean nagusiekin korritzen dut, jubentatzen, eta zailagoa izango da. Baina halere, irabazteko ahalegin guztiak egingo ditut.

-Euskadiko txapelketa eta gero, Espainiako txapelketan ibili zara... - Pasa den larunbatean izan zen Galizian. Lasterketa oso gogorra izan zen. 64 kilometro denera, karreteran. Abiadura ere oso azkarra izan zen eta leku guztietako korrikalariak egon ginen: Dena den, nik 18. postua egin nuen 128 korrikalariren artean. Ez dago gaizki.

-Zu zabilzan mailan ibiltzeko, gogor entrenatu behar al da?- Bai, egunero. Nik 30 edo 40 kilometro egiten ditut eta ba-



tzutan 50 eta 60 ere bai. Azterketetan nagoenean, eskolara bizikletaz joan eta etorri egiten dut, "forma" ez galtzeko.

-Eta horrek ba al du eraginik ikasketetan?- Bai. Denbora asko kentzen dit eta hori nabaritu egiten da gero. Trimestre hasieran nahiko ondo ibiltzen naiz baina gero jeitsi egiten dira notak.

-Txirrindularitzak kirol gogorra izatearen fama dauka...

- Gogorra da, bai. Nire ustez hori horrela da jendeak ahal duen guttia ematen duelako beti, ehuneko ehuna. Beste kirol batzuek, une lasaiak izan ditzakete, baina txirrindularitzan ez. Oso ondo entrenatu behar da.

● Adina: 15.

● Bide laua ala aldapatsua?

Antzera, baina lauan hobe.

● Idolorik? Greg Lemond.

● Desio bat? Datorren urtean Espainiako txapelketara joatea.

Orainko kafetegia

BERISTAIN EDARI BANATZAILEA

- Coca Cola
- Keler zerbeza
- Altolako Ura
- RAM esnea
- Codorniu
- Lopez Ojeda ardoa

lñaki 74 38 27

IDO'S Edengintza

74 34 40
Eskubideen plaza 1 6

100 partaidetik gora Nahaste-Borrastean

Inoiz baino jende gehiagok hartu zuen parte 9. Nahaste-Borrastean, eguraldia korrikalarien lagun izan ez arren. Guztira 107 korrikalarik hartu zuen parte. Aipatu, emakumezkoen kategorian Gotzone Aierdi izan zela partaide bakarra. Sari banaketaren ostean, Jabi San Martin eta Alberto Zelaia, asteazkenean bizikleta gainean Moskurantz abiatu ziren bi elgoibartarrak omendu zituen Kimetz elkarteak.



Gotzone Aierdi izan zen emakumezkoen lasterketako partaide bakarra.

SAILKAPENA:

Alebinak:

- 1- Ruben Canseco.....16'
- 2- Unai Arrieta.....16'46"
- 3- Julen Zabala.....17'22"

Infantilak:

- 1- Urko Rosario14'58"
- 2- Iker Panizo.....15'04"
- 3- Ander Soraluze15'35"

Nagusiak:

- 1- Martin Domingez23'17"
- 2- Jose R. Ortuoste.....23'26"
- 3- Javier Santamaria23'45"
- 4- Javier Torquemada23'45"
- 5- Imanol Santos.....23'55"
- 6 -Xabier Oliveira24'
- 7 -Iñaki Ulazia24'10"

Emakumezkoak:

- 1- Gotzone Aierdi32'
- ### Helduak:
- 1- Juan J. Etxeberria24'46"
 - 2- Iñaxio Garmendia26'28"
 - 3- Antonio Fernandez28'12"

Lehia gogorra Euskadiko eskalatzaileen artean

Joan den larunbatean Olai-zaga kiroldegian egin zen Euskadiko eskalada txapelketa oso arrakastatsua izan zen partaidetza zein ikuslego aldetik. Guztira, 38 eskalatzailek hartu zuen parte txapelketan, 34 gizonetzok eta 4 emakumezkoak. Azken unera arte, Fernando Martinezek ezin izan zuen txapela bereganatu, Patxi Arozena eta Gotzon Gardeazabal gogor ibili baitziren

txapela eskuratu nahian.

Gauean, kiroldegia jendez bete zen dantza-eskalada saioa ikusteko. Eskalatzaileak ere oso gustora geratu ziren herrian jasotako harreragatik.

Lehenengo elgoibartarra 17. postuan, Joseba Alvarez izan zen eta bigarrena Josu Merino, 26.postuan. Argazkian agertzen direnak Fernando Martinez eta Patxi Arozena dira.

SAILKAPEN OROKORRA:		Altuera	Denbora
1- Fernando Martinez		38	6,34
2- Patxi Arozena		37-	6,18
3- Gotzon Gardeazabal		37-	5,14
Emakumezkoak:		Altuera	Denbora
1- Josune Bereziartua		24+	4,04
2- Leire Agirre		23+	3,10
3- Kristina Herrera		13+	2,24



"Egur" tailerra: artearen espresio bide

1981. urteko uztailean sortu zuten bizpahiru pertsonak "Egur" arte tailerra. Ongarri elkartearen bitartekaritzari esker, Fernando Beorlegi artista eibartarrak eta Pedro Azpiatzuk "Egur" tailerraren jaiotza bultzatu zuten. Lokalaren auzia finkatu bezain pronto klaseak ematen hasi ziren.



↳ Pinturako-tailerra izan da orain arte jende gehien erakarri duena.

Ezinbestekoa

izan zen Udalaren laguntza "Egur" Arte tailerra sortzeko. Hasiera-hasieratik Aita Agirre Plazako lokalak, "Egur"-i eman zizkion Udalak. Lokalak egokitu bezain laster, pintura, grabatu eta eskultura klaseak ematen hasi ziren. Irakasle bakarra zegoen orduan; Fernando Beorlegi bera.

Beranduago, hiru iharduera hauei laugarren bat gehitu zitzaion: esmaltea. Urte batzuen buruan esmalte klaseak bertan behera utzi behar izan zituzten, Tere Lodoso irakasleak izan zuen istripuak eraginda.

Lokal aldaketak ere izan dituzte "Egur"ekoek.

Ikastolarekin akordio batetara iritsi ondoren, Aita Agirre Plazako lokalak Ikastolari eman zitzaizkion eta haien truke, Ikastolak Ubitarte, Lorito eta Urasandiko lokalak utzi zituen. Horrela, "Egur" arte tailerraren iharduerak deszentralizatu eta bakoitzak toki ezberdin batean ematen hasi ziren. Pintura eta grabatua, Ubitarteko lokalean irakasten da, esmaltea Loriton eta Urasandiko lokalean eskultura emateko asmoa bazuten ere, lokala txukundu arte itxaron behar.

Urtean zehar hainbat ikastaro antolatzen dituzte "Egur"ekoek. Irakaslegoari ordaintzeko diruaren ehu-

neko 60a Udalak jartzen du eta gainontzekoa ikastaroaren matrikulatik ateratzen da. Honez gain, ikasleek 3.000 pezetako kuota edo diru-sari bat ordaintzen dute hilero, eta materialea ere ikasleen kontu doa.

Aurten 24 ikasle inguru daude "Egur"en. Gehienak, 15 bat, pintura klaseetan daude.

Datorren ikasturtean Jabi Herrero pintura eta marrazketa emango du eta Nerea Aranburuk, grabatua eta urte askotan eman gabe egon den esmaltea.

"Egur" arte tailerrean egiten diren lanekin erakusketa bat egiten dute kurtso bukaeran. Uztailean

egin ohi dute erakusketa baina, aurten Kultur Etxeko erakus gela beteta dagoenez, irailera edo urrira atzeratu behar izan dute. Aurtengo urrirako ere, Gipuzkoako artista hobereenen lanen erakusketa egitekotan daude "Egur"ekoak.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1981

Arduraduna:

M. Fran unzueta

Ikasturtea:

Irailetik ekainera

Kuota: 3.000 hilero

Ikasle kopurua: 24

Iharduerak:

Pintura, grabatua eta esmaltea



Muruamendiaren
ELGOIBAR

GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

Eskulanean saiatzen gara:

Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak



OIERKI ASZENSOREAK

Urrutira deitu gabe bertakook eta segiduan konponduko dizugu aszensorea

☎ (943) 11 35 15 • ☎ ABERIAK (943) 11 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

Errusiar portzelanazko eskulanen erakusketa Kultur Etxean

Jose Membrillera, 36 urteko elgoibartarrak, errusiar portzelanaz egindako eskulanak ditu erakusgai pasa den ortiraletik Kultur Etxeko erakusgelan. Joseri, izugarri gustatzen zaizkio eskulanak, eta horretan ematen ditu tornillo lantegitik atera ondoren gelditzen zaizkion orduak. Aspalditik dabil eskulangintzan: hasi, pirograbatuak egiten hasi zen eta orain errusiar portzelanarekin dabil.

Errusiar portzelanaz gain, arto pasta, paper

pasta eta estainua landu ditu artista elgoibartar honek. Praktikoki, eskuak dira lan tresna bakarra, baina baliabide urritasuna irudimenarekin ordezkatzeko du. Filosofia honi jarraiki, teknika ugari eta ezberdinak erabiltzen ditu.

Jose Membrilleraren erakusketa igandera arte egongo da irekita. Orduetgia arratsaldeko 7etatik 9etara izango da astegunetan eta eguerdiko 12etatik 2etara jai egunetan.



Jose Membrillera, artista elgoibartarra.

■■■■ KONTZERTUA ■■■■

Dinamarkako

SJAELLANDS Accordeonorkester

ALLEROD Musikskoleorkester

Ekainak

28

astelehena

Herriko
Antzokian

Arratsaldeko

8 etan

ELGOIBARKO UDALA
MUSIKA ETA DANTZA FUNDAZIOA



FORU ALDUNDIAREN
LAGUNTZAREKIN



28 Astelehena

18,30 EMAKUME TALDEAREN BILERA

Tokia: Kultur Etxea

20,00 KONTZERTUA

Dinamarkako

Sjaellands accordeorkester

Allerod Musikskoleorkester

Zuzendaria: Peter Anders

Tokia: Herriko Antzokia

Antolatzailea: Musika Fundazioa

San Pedroko Jaiak

29, ASTEARTEA

11etan: Meza Nagusia: Prozesioa. Ondoren, auzotarren bazkaria. Egun eta gau osoan zehar Olloki eta Ziolar trikitilariak

2, OSTIRALA

Gaueko 10etan Errekalde anaiak

Gaueko 12etan, Bola Jokuak

3, LARUNBATA

Gaueko 10etan, Idi demak

4, IGANDEA

Goizeko 10,30etan: Meza

11,30etan: Adari jokua

12etan: Esku pilota partidua

6etan: Herri kirolak

Aizkolariak, Harrijasotzaileak eta txinga lehiaketa.

Egun osoan zehar Olloki eta Ziolar trikitilariak.



YULEN 94

SAN JUAN JAIK ALTZOLAN

25, OSTIRALA

Gaueko 12etan: Kontzertua: Zokoan eta Octubre Negro.

26, LARUNBATA

13etan: Santurtziko arrainen dastaketa

17etan: Haur eta gaztetxoentzako joku herrikoiak.

Mozorrotzen direnentzako sari bereziak.

18etan: Txokolate eta txurroak.

19etan: Buruhandiak.

Jarraian, futbolin txapelketa

23etan: Berbena eta eskobaren jokua.

Jaien amaiera



YULEN 94

Artegi LEHIAKETA

Ekaineko galdera: Gure herritik hain zikin pasatzen den Deba ibaia, non jaio eta hiltzen da?.....

IZEN-ABIZENAK.....

HELBIDEA..... TEL:.....

Ekainaren 30ean Mikoondas bat zozketatuko dugu zuzen erantzuten duzuenon artean.

(Anima zaitetzte eta ekarri erantzuna BARREnera. Nafarroa enparantza 2.)

Etxebizitzak

Pisua salgai Deban (Lersundi kalea). 118m², kanpokaldera eta 3. pisua. Etxe zahar berriua. Laguntzak jaso dezaketenentzat aproposa. **Tel: 74 29 05**

Berritutako buhardila bat salgai. San Inazio 5 **74 35 09 - 74 31 66**

COU, EFP eta Batxiller Tekniko eta Moduloetako ikasleei dibujo lineal-industrialeko klaseak ematen dizkiet. **Iñaki: 74 34 01**

Magisteritza eta administrari tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu. **Deitu 74 04 13 telefonora.**

Paseoko bizikleta saltzen dut. "Peugeot" kanbioduna. **Prezio onean. Tel: 74 22 67 Myriam**

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria. **Tel: 74 27 39**

Paseoko bizikleta saltzen dut. "Peugeot" kanbioduna. **Prezio onean. Tel: 74 22 67 Myriam.**

Garaje bat saldu edo alokatu genuke. San Roken (pista beltzean). **74 08 79 Julian edo Maria Jesus**

Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. portaren alboan. Harremanetarako deitu, **74 06 56 edo 74 42 47** telefonoetara.

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari. Tel: 74 21 35-74 22 10**

FORD FIESTA zuri bat saltzen dut, BI-AB. Prezio merkea. **Tel: 74 28 77. Jose**

Lana

Udan klase partikularrak emateko prest nago OHOk haurrei. Magisteritza tituloa eta ingenieritza ikasketak ditut. **74 28 53 Alazne.**

Iturgintza eta berogailu lanak egiten ditut etxebizitzetan. Prezio merkeak. **74 41 94. Sanchez.**

Programatzaileak, partikular, enpresa eta komertzio-entzako aplikazio informatikoak egiten ditu. Proiektua aztertzeko prest gaude inolako kosturik gabe. **74 25 35**

Salerosketak

Ezkontzeko soinekoa salgai. Buruko apaingarria eta kankanarekin. Luzea, salmoi kolorekoa, manga motza. Neskaren neurriak: luzera: 165 zm, bularra: 85 zm, gerria 68 zm. Erdi prezioan: 80.000 pta. Ikusi edo probatu nahi izanez gero, deitu **76 17 81 edo 945-24 32 55** tel.etara.

Opel Corsa Cyti, BI-AK saltzen dut. Hobekuntzekin. Deitu lan orduetan. **94-6201918 ra (Gorka).**

Organu HAMOND bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 pta. **Alberto: 74 14 94**

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko. **Aitor: 74 22 74 Egun osoz.**

Idatzi zure testua eta bidali **BARRE**nera



AGUAS
ALZOLA
URAK

Txiriboga


Taberna

GOSARIAK, PINTXOAK
ETA OTARTEKOAK
Plaza merkatua 23-24

Kide
ileapaindegia

74 00 69
San Frantzisko, 40-1 ezk.

PAGOAGA S.A. Iturgintza



GAS INSTALATZAILEA, IG4 baimenarekin

**Gas Naturala
eta
Propanoa**

KANPORAKO ETA ETXE BARRURAKO.

- ↳ ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK
- ↳ IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN

☎ 74 02 79-74 05 12 ELGOIBAR

❖ *Lubia jatetxea* ❖

Berezitasunak: Arraina eta haragia erreta eta bildotsa burduntzi erara

- ❖ EZKONTZAK
- ❖ BATAIOAK
- ❖ JAUNARTZEAK
- ❖ DESPEDIDAK
- ❖ EGUNEROKO MENUAK
- ❖ BILERETARAKO
MENU BEREZIAK
- ❖ ETAB...



K/ Bainuetxe zumardia, 2- Tel. 74 05 13. ALTZOLA-ELGOIBAR